

Erabiltzailea

Pasahitza

Ni gogoratu

[Erabiltzailea/Pasahitza gogoratu](#)

Asteartea, 2012-04-24

VILLABONA
AIZTONDOKO **hitza** info

- [Ekitaldiak](#)
- [Iragarki Laburrak](#)



- [Kirola](#)
- [Kultura](#)
- [Aisia](#)
- [Gizartea](#)
- [Ekonomia](#)
- [Politika](#)
- [Hartu hitza](#)
 - [Zorion Agurrak](#)
- [Herriak](#)
 - [Aduna](#)
 - [Amasa-Villabona](#)
 - [Asteasu](#)
 - [Larraul](#)
 - [Zizurkil](#)
- [Paperekoa](#)

Eskola Txikien festa Larraulen egingo dute, ekainaren 3an

2012/04/24

[Hezkuntza](#), [Larraul](#)

Nork [Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza](#)



Eskola Txikien festak 25 urte beteko ditu aurten, eta Larrauli tokatu zaio bera antolatzea. Ekainaren 3an ospatuko da, eta egun guztiko egitaraua aurkeztu dute gaur eguerdian Donostiako Koldo Mitxelena kultur etxean.

Aurkezpen ekitaldian Mikel Olano Gipuzkoako Eskola Txikien Koordinakundeko kidea, Lurdes Imaz EHIGEko koordinatzailea, Igor Iturain Eudeleko kidea eta Ixiar Eizagirre Larraulgo guraso elkarteko kidea egon dira.

Egitaraua:

10:00: Txupinazoa plazan.

10:00-12:00: Eskulanak (8-12 urtekoentzat), Hezkide eskolan.

11:30: Pirritx eta Porrotxen emanaldi berezia plazan.

13:00: Ekitaldi nagusia Urbeltza plazan.


14:00: Euskolabel bazkaria frontoian.

15:00: Gorriti eta bere animaliak, Otsozabal gunean.

17:00: Kupela taldea plazan.

Egunean zehar: Puzgarriak; Eskola Txikien dokumentalaren proiektzioa eta erakusketa eskolan; Larraulgo eskola zaharrari buruzko erakusketa Ekomuseoan; idiak gurdiarekin eta bolatokia.

Iruzkina

 Erabiltzailea Pasahitza

[Izena eman](#) Berriketan.

•

Nabarmenak

[Asvineneako II. Kabareta eta Poltsiko lehiaketa](#)

[Aduna](#), [Aisia](#), [Kultura](#), [Nabarmenak](#), [Paperekoa](#)

Nork [Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza](#)

Musikaz, kolorez eta dibertsioz bete dute Asvinenean II. Kabareta, gaur 21:30etik aurrera. Sio-ren dantza tribala; Alegria Hermanas-en bakarrizketa; Iraitz eta Gastonen Trapegocentrismo; Ane Mirenen Bueltan [...]

[Irakurri gehiago](#)

[Herrira bilgunea aurkeztuko dute Aljibean egingo den ekitaldian, bihar 12:00etan](#)

[Nabarmenak](#), [Paperekoa](#)

Nork [Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza](#)

Herrian hutsik diren aulkiak betetzeko helburuarekin sortu dute Herrira bilgunea Amasa-Villabonan. Aurkezpen ekitaldia bihar, hilak 24ean, egingo dute Aljibean, 12:00etan. Herritar guztiak bertara gonbidatu dituzte [...]

[Irakurri gehiago](#)

Hedabideak




- [Alegialdeko Hitza](#)
- [Anoetaldeko Hitza](#)
- [Ibarraldeko Hitza](#)
- [Leitzaldeko Hitza](#)
- [Tolosako Hitza](#)


- [Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza](#)



ostalaritza
Gida 2012
SAGARDOTEGIAK

Bilatu zure inguruko sagardotegia

Eguraldia-en Villabona			
Data	ast 24	ask 25	
	12-24	00-12	12-24
Zeruaren egoera			
Gutx./Gehi. Temp. (°C)	7 / 12	10 / 18	

© AEMET 

Berriketan.info [\[RSS\]](#)

Viewing item 1 to 5 (of 5 items)

- [Album](#)
- [Guneak](#)
- [Events](#)
- [Facestream](#)
- [Gaiak](#)
- [Imported blog](#)
- [Profila](#)
- [Tweetstream](#)



-

[Gurutze Izagirre](#)-(e)k eguneraketa bat bidali du: duela 1 ordu, 11 minutu · [Ikusi](#)

Zerga bilketen datuek ez dute itxura onik. Azaleko gai nagusia, biharko egunkarian. Argazkia Jaizkibel konpainiari, Emakunde saria jaso duen egunean jakinda Herrizaingo Sailak iaz "arbitrarioki" aldatu ziela ibilbidea. Gure uztako bi gai azalera: Gernikako bonbardaketaren 75. urtemugaren harira zibilak militarren helburu nola bihurtzen joan diren jaso du Mikel Peruarenak,

erreportai zabal batean. Imanol Magro, berriz, [...]



•

[Urtzi Urkizu](#)-(e)k eguneraketa bat bidali du: duela 2 ordu, 23 minutu · [Ikusi](#)

Alberto Surio EITBko zuzendari nagusiak Erredakzioko Estatutuaren zirriborroa aurkeztu dio gaur EITBko administrazio kontseiluari. EITB eta erredakzioko behin betiko kontseiluen arteko aurrehitzarmena jaso du testu horrek. Administrazio kontseiluaren lan-batzordeak aztertuko du eta ondoren edukiaren inguruko txostena idatziko dute.



•

[Garikoitz Goikoetxea](#)-(e)k eguneraketa bat bidali du: duela 2 ordu, 43 minutu · [Ikusi](#)

Erakundeek lan asko dutela egiteko, hori esanda amaitu du hitzaldia Mendiak. Amaitu da ekitaldia. Mokadu bat jateko aukera izango dute orain.



•

[Garikoitz Goikoetxea](#)-(e)k eguneraketa bat bidali du: duela 2 ordu, 50 minutu · [Ikusi](#)

”Hau bai giro ederra daukaguna hemen”, esan du Mendiak hitzaldian. Orain bost bat minutu izan du tentsio une bat Jaurlaritzaren jarreragatik kontuak eskatu dizkiotenean. Eskerrak eman dizkie alardeei: ”Ez da erraza izan, eta ez duzue etsi”.



•

[Garikoitz Goikoetxea](#)-(e)k eguneraketa bat bidali du: duela 2 ordu, 52 minutu · [Ikusi](#)

Irungo alarde parekideko ordezkariak udalaren jarrera salatu du. ”Alarde misto publikoa espero dugu”.

Azken Eztabaidak

- markel(e)k [Jexux Mari Irazu: “Finalera iristea da nire helburua eta ilusioa”](#) bidalketan
- aitor(e)k [Pilota jaialdia eta txakolin dastaketa egongo dira bihar Amasan](#) bidalketan
- Xabier(e)k [Fraisoroko ama ezkongabeen eta hauen haurren ezkutuko istorioak argitaratu dituzte](#) bidalketan
- elordi(e)k [Hutsik egiten ari ez dena, euria](#) bidalketan
- Villabonatarra(e)k [EAJ-k hiru alkategai aurkeztu ditu](#) bidalketan

© Tolosa Herria Hedabideak, S.M.

Araba Etorbidea 5, atzea, 20400 - TOLOSA - Tel.: 943 655 695 - Faxe 943 650 018 - E-posta: villabona-aiztondo@hitza.info

